

# Euskalgintza Plaza Hutsean\_

Euskalduntze fase berri  
baterako gogoetak

# **Euskalduntze fase berri baterako gogoetak\_**

Sar Hitza\_ 4

---

Iraganaz\_ 5

---

Egungo egoeraz\_ 8

---

Bulkada berri baten beharraz_	11
Berrikuntza ideologikoa	12
Euskalgintzaren biziberritzea	16
<hr/>	
Ipar adostu baten beharraz_	19
Gobernantza eredu berri baten aukera	21
<hr/>	
Estatus politiko berrien eztabaidaz_	22
<hr/>	
Azken hitza_	23
<hr/>	

## Sar hitza\_

lazko Plaza Hutsa tailerrean abiatu zen gogoeta prozesu baten emaitza da aurten-go tailerrean ipintzen dugun dokumentu hau, gogoetaren bigarren fasea ireki asmo duena. Bigarren fase honek dimentsio publikoa izango du. Ezkerreko independentistion eztabaida publikoa izan nahi du, euskaltzale guztiekiko hartu-emanen egin nahiko genukeena. Helburu bikoitzarekin: batetik, ezkerreko independentismoaren argipen ideologiko eta estrategikoan laguntzea; bestetik, euskalduntzearen eta euskalgintzaren etorkizunaren inguruan dagoen eztabaida publikoan ekarpena egitea.

Dokumentu hau eztabaidarako oinarri bat da; beraz, ez-osoa eta zehazgabea ere bada puntu batzuetan. Iradokitzailea izan nahi du, eztabaida sustatzeko helburuz. Urrian ospatuko den Euskararen Plaza Hutsa tailerrean emango zaio amaiera gogoeta prozesuari.

# Iraganaz\_

1. 50. hamarraldian hasi zen euskalduntze prozesuaren erregaia orduko modernizazio-jauziari eman zitzaion erantzun utopiko-berdinzalea izan da. Amets bat ekoitzi zen: Euskal Herri euskalduna. Amets zabalago baten parte zena: Euskal Herri aske eta berdinzalea. Orduan piztutako mugimendu haren bulkadaren eragile nagusiak euskararen galeraren sententzioak sortutako larritasuna eta askatasun egarria (zentzu zabalean uler-tuta) izan ziren, besteak beste. Euskaltzaletasun horretan, euskalgintzan bertan, bazegoen XIX. mendetik eta Pizkundearen garaitik zetorren hari bat, guztiz eten ez zena.
2. Amets edo utopia horrek mugimendu bat sortu zuen, mugimendu euskaltzalea (euskalgintza), euskalduntze prozesuaren motorra edo arnasa izan dena. Euskalduntze prozesua trakzionatu duena herri-mugimendua izan da oro har, herrigintzatik eman zaio arnasa euskararen biziberritze prozesuari.
3. Euskalgintzak, modu intuitibo samarrean batzuetan eta modu erabat kontzientean besteetan, euskararen biziberritzea ardaztu duten zutabe

batzuk hautatu eta landu ditu: Corpora (euskara batua), euskararen eta euskarazko irakaskuntza (ikastolak, euskalduntze-alfabetatzea eta hezkuntza publikoa geroago), hedabideak, kulturgintza (literatura, musika, bertsogintza, antzerkigintza), nagusienak aipatzearren.

4. Asko da aurreratu dena. Azken hamarraldietako euskalduntze prozesua eredugarria da kanpoko hiztun-komunitate minorizatuentzat. Euskalduntze prozesua herri-garapen edo eraldaketa prozesu zabalagoaren parte bat izan da. Euskal Herrian herrigintza ziklo oparoa garatu da XX. mendearren bigarren erdialdean, anomalia bat izan dena Europa mailan.
5. Aitortza zor zaio mugimendu euskaltzaleari eta, oro har, euskararen alde egindako ekimen orori. Egindako lanak bizia eman dio euskarari. Galera prozesu azkarra gelditzeko gaitasuna izan du, inolaz ere gutxietsi behar ez den lorpena da. Galera gelditu eta, nahi eta espero zen neurrian lortu ez bada ere, eta hizkuntza bermatzeko gutxieneko atalasea iritsi ez bagara ere, euskalduntze eta biziberritze prozesua abian jartzeko gaitasuna izan du. Horri ere tamaina hartu eta behar beste baloratzea komeni da.
6. Euskararen biziberritze emankor hau hego Euskal Herrian bi estrategia politiko dibergente izan diren testuinguru historikoan gertatu da. Lehenak, Espainiako sistema konstituzionalak hego Euskal Herriaren garapen ekonomiko sozial eta kulturala ukatzen zuela ulertu eta bere kontra borrokatu zuen behetik gorako herri-eraikuntzan jarriz energiak. Bigarrenak, hego Euskal Herriaren garapena konstituzioak ezarri zuen autogobernu sistemaren baitan posible zela proposatu zuen. Paradoxikoa eman dezakeen arren, euskararen biziberritze prozesu hain emankor hau bi estrategia politiko hauek etengabeko talkan egon diren sasoian gertatu da.
7. Iparraldean abiatutako euskararen biziberritze prozesuak Hego Euskal Herriko hauspoaren eragina jaso du. 80ko hamarraldian Ipar Euskal He-

riaren aitortza instituzional eta kulturalaren aldeko herri-mugimenduak azkartu ziren eta euskara aitortza soziala lortuz joan zen. Euskararen aldekotasuna mugimendu abertzaletik harago hedatu da azken 15 urteetan, eta ipar Euskal Herria vs Paris talkaren erdian kokatu da gero eta nabarmenago. Halere, Parisen estrategia ukatzailearen aurrean euskal hiztun-komunitateak euskararen mesedetan batasun estrategia bat garatu badu ere, batasun hori oso heterogeneoa izan da, eta bere baitan ikuspegi eta ideologia askotarikoak bildu ditu. Parisek duen indar eta eraginaren poderioz ordea, euskal hiztun-komunitatean izan diren ikuspegi ezberdin horiek ez dira lehen planoan ageri izan.

8. Hamarraldi guzti hauetan ez da egon euskararen normalizaziorako edo euskalduntze prozesurako bide-orri edo eredu bakar adosturik (Txepetxen eredua, Fishmanena, aitaren etxea edo amaren sua), ezta helburu nagusi edo ipar partekatu eta adosturik ere (Euskal Herri euskalduna, diglosia egonkorra, hiztun-komunitate trinkotu eta bizi bat). Eta, bestalde, garai jakin bateko espektatiba edo uste batzuk ez dira bete edo osatu, ezagutzak erabilera zekarrela zioen ustea kasu. Halaber, euskararen aldeko estrategiak ez dira beti eraginkorrenak izan lurraldetasunaren ikuspegitik. Euskararen lurraldea zabala eta askotarikoa izanik, ez da beti asmatu berreuskalduntze estrategiak lurralde-eremu bakoitzeko errealitate soziolinguistikora eta soziokulturalera doitzen.

## Egungo egoeraz

9. Gaur, hamarraldiak iraun dituen euskalduntze prozesuaren agorpena bizi dugu eta garaiko bulkadaren inertziak ari gara kudeatzen. Eremu batzuetan euskararen erabilerak beheranzko joera hasi du lehen aldiz azken hamarraldietan. Ezagutzaren moteltzea ere antzematen da. Datu positibo ukaezin batzuen ondoan nahi baino datu kezkarri eta itzal gehiago ditugu, herri honetan egin den eta egiten ari den ahalegin kolektibo erraldoiaren ondorioz bestelako zerbait esperoko genuke. Denetan garrantzitsuena, nolnahi ere, zera da: dauzkagun datuekin, eta galera-irabazien arteko erlazioa gorabehera, euskararen etorkizunak gutxieneko bermea duela esan ahal izatetik urrun gaudela, baita euskarak posiziorik onena duen lurraldeetan ere.
10. Izan ere, ezagutzan asko aurreratu arren, gaur egungo euskaldunek garai batekoek baino harreman-sare erdaldunagoa edota eleaniztunagoa dute. Euskaldunen ia erdia erdal elebidunak dira, hau da, erraztasun gehiago dute erdaraz egiteko euskaraz baino. D ereduek ez dute inolaz ere bermatzen behar adineko hizkuntza gaitasuna. Gaurko hizkuntz ohiturekin etxeko transmisioa ezbaian dago etorkizun hurbilean.



11. Oro har, euskal eragile politikoek (erakunde zein alderdi politikoek) ez dute komunikazio espazio propioa sendotzeko politikarik garatu azken urte luzeetan eta, gaur egun ere, komunikazio plan baten faltan jarraitzen dugu; noiz eta digitalizazioaren aro global aldakorrean erabat murgildu garenean, non euskararen bizitasun digitala bermatzeko tresna eta edukien eskaintza ingurune digitalaren aldaketa bizkorretara egokitu behar diren.
12. Euskal kulturaren transmisioaren etenez ohartarazi digute berriki hainbat azterketek. Azteketa horietan egungo hezkuntza sistemen ezinak jartzen dira agerian, baina errealitate orokorrago bat ere bai: Sozializazio eragile nagusi izan diren instituzioak (familia, eskola, parekoen taldea eta komunikabideak) indarra galtzen ari dira kulturaren transmisioari dagokionez, Interneteko agente erraldoien mesedetan. Eta ezin dugu ahaztu bereziki familia eta parekoen taldea (eta azken hamarkadetan eskola) izan direla euskal kulturaren transmisio-eragile nagusiak.
13. Halaber, migrazio-fluxuen eraginez kulturalki inoiz baino anitzagoa izango den Euskal Herrian euskarak jendarte demokratiko eta inklusibo baten eraikuntzan bete beharreko funtzio soziala eta horrek eskatzen dituen politikak pentsatzen hasi baino ez gara egin. Zentzu horretan, dugun esperientziatik zer ikasi handia dugu. XX. mendean ere etorkin asko jaso zituen Euskal Herriak. Orain baino egitura ahulagoekin eta baldintza eskasagoetan, ezkerreko ideologia abertzalea gai izan zen euskara osagai integratzaile gisa onartua izan zedin; hala praktikaren mailan (migrante ugari euskaldunduz) nola diskurtsoaren mailan (euskara “guztion” ondareztat harturik).
14. Azterketa orokor honen argitara zera esan dezakegu: Gaurdaino ekarri gaituen euskalduntze prozesua agortu egin da eta orain arteko hizkuntza-politikek goia jo dute. Honako hau momentu berezia da eta horren

kontzientzia argia behar dugu: Euskalduntze prozesuan aurrera egiten jarraituko dugun ala orain arte irabazitakoaren zati handi bat galduko dugun, horixe da jokoan dagoena.

15. Euskararen egoera koadro zabalagoaren parte da. Euskal Herriaren metabolismo sozial, ekonomiko eta kulturala ahul ageri da modernizazio-jauzi berri baten testuinguru historikoan. Eztabaida ez da botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusten dugun, baizik botilak zuloa duen. Bizi dugun testuinguru historikoari zorrotz begiratu behar zaio. Historiaren azelerazio fase batean aurkitzen gara. Globalizazio kapitalistaren jauzi hau inoiz ezagutu gabeko abiadan gertatzen ari da, krisi-aro arriskutsu eta ziur gabean murgildu gara.
16. Espainia eta Frantzia, behiala estatu-nazio indartsuak izan zirenak, potentzia ekonomiko mundialak eta modernitatearen ikurrak, krisian aurkitzen diren sistema politikoak dira egun, autoritarismora lerratzen ari direnak. Krisi egoera horretan, estatu-nazio homogeen eta ondo mugatu horiei eusteko saiakerek euskara biziberritzeko ahaleginen kontra egingo dutela aurreikus dezakegu.
17. Edozein kasutan, epe ertainean datorkigun jendarte-moldea nolatsukoa izango den aurreikustea ariketa batere ziurra eta erraza ez den arren, sentazioa da Mont Blancera etxeko zapatillekin, kranpoirik gabe eta behar adina ur eta jatekotik gabe igo nahi dugula. Gaur egun gauden bezala ez gaude bidea egiteko behar den bezala jantzita, bidean joko digun haizeari eutsi eta aurrera egiteko bestelako ekipazio bat beharko dugu (estrategia eta planifikazioa, baliabide ekonomikoak eta teknikoak, estatus juridikoa, atxikimendua eta motibazioa). Alegia, euskalduntze fase berri bat pentsatu eta gorpuzteko garaia iritsi da.

## **Bulkada berri baten beharraz**

18. Egoera honetan ezinbestekoa zaigu herri-bulkada sendoa. Euskal Herriak globalizazioaren haizete disolbatzaileei eta Estatuaren inboluzio autoritarioari aurre egingo badie, ezinbestekoa zaigu bulkada utopiko berri bat. Ametsa edo utopia birsortzeko garaian gaude berriz ere. Euskararen geroa hiztun kontzienteak sortzeko gai den herri-gogo zaharberrituari lotua ikusten dugu inoiz baino gehiago.
19. Utopia ondo fundamentatu bat dugu faltan, hain zuzen: Herri-proiektu ondo imajinatu bat, geure buruari begiratzeko eta munduaren aurrean agertzeko modu berri bat, ziurtasunak eman eta gogobeteko gaituena. Bizitzak eta lurraldeak suntsitzen dituen neoliberalismoari berdintasuna, askatasun demokratikoak eta bizitzaren zaintza oinarri dituen eredu berri bat kontrajarriko dion Euskal Herri burujabea.
20. Euskarak herri-egitasmo zaharberritu horren hizkuntza behar du, euskaldunok mundu-ikuskerara bat (gehiago) eskain dezagun: homogeneizazioaren kontra, berdintasunaren eta askatasunaren alde. Horregatik, euskaldun oso eleanitzak sortzeko gai behar dugu euskararen lurraldean,

kulturalki inoiz baino anitzagoa eta globalagoa izango den Euskal Herrian. Euskal Herri euskalduna dugu amets eta helburu, euskarari bere lurraldea ematea, lurralde osoa, herritar guztiak eta bizitza sozialeko alor guztiak aintzatetsiz.

21. Izan ere, kultura minorizatuek ezinbestekoa dute inpultso utopikoa, areago zibilizazio krisiaren garaiotan. Utopia handien gainbeherak ezin gaitu utopiaren beraren ezeztapenera eraman, emantzipazio kolektiboa ezezik askabide indibiduala ere barnebilduko duten utopia ondo fundamentatuak pentsatzeko beharrezko patxada hartzera baizik. Ez dugu Euskal Herri euskaldunaren ametsa lausotzeko arrazoibiderik aurkitzen. Besterik da bisio utopiko hau ezin daitekeela idealismoarekin nahastu. Hain zuzen, pragmatismo eraldatzailearen eskutik joan behar du euskalduntze fase berriaren helburuak, estrategiak eta baliabideak proposatzerako orduan.

## Berrikuntza ideologikoa\_

22. Euskalgintzak azken hamarraldietan intuiziotik eta dinamika solte samarretatik ikuspegi estrategikora, egituratzera, profesionalizaziora egin du jauzi, eta horretan urrats nabarmenak egin eta sendotasun ukaezina erakutsi du. Aldi berean, azken garaiotan, mugimendu euskaltzalea apaldu egin da. Euskalgintza erakundetu egin da, azpiegitura asko sortuz (eta azpiegitura ezinbestekoa zaigu), baina bidean mugimendua lausotu da.

23. Alabaina, euskalduntze prozesuaren eragile nagusia, orain arte bezala, herri-mugimendua izango da aurrerantzean ere. Euskararen biziberritzea prozesu sozial eraldatzailea baita, eta ez baitago eraldaketa sozialik mugimendua sortzeko gai den komunitate ahaldundurik gabe. Ahalduntzeko modua euskaldunok, indibidualki zein hiztun-komunitate gisa, azpiratuak garenaren kontzientzia hartzea da hain zuzen; eta, gauden lekutik, gizar-te osoarentzat (hiztun mota edozein dela eta herritar guztientzat, alegia) onuragarria den herri-proiektua gorpuzteko ahaleginean engaiatzea.
24. Komunitate batek emozio, desira eta ideia multzo bat behar du ekiteko, ahaldundu eta mugimendu izateko; ideologia funtsean. Euskararen egiazko gorpuzte sozialera iristeko aterki ideologikoaren lanketa da, hain zuzen, erronka handienetakoa. Mugimendua birsortzeak hizkuntza-ideologia berritzea eskatzen digu.
25. Azken batean, bi estatu handien hegemonia linguistikoen mendean bizi da Euskal Herria. Frantsesez edota gaztelaniaz derrigorrez hitz egin behar dugu bizi ahal izateko, gainerako hizkuntza-komunitateek ezin dute hori bera egin. Ondorioz, euskarak menpeko estatus juridikoa du. Euskara ez da hizkuntza normalizatua izango bere lurralde guztietan hizkuntza ofiziala ez bada. Hori, bistan da, asimetria nabarmena da. Toleratu egiten da erdaldunen elebakartasuna eta galarazi euskaraz bizi ahal izatea. Natural hartzen da erdaldunak erdara hutsean bizitzea eta, berriz, euskaldunak euskara hutsean bizitzea galarazi egiten da.
26. Eta horrek guztiak aterki ideologiko bat du, herritarren gorputzetan zehar hamaika mezuren bidez ibilarazi eta txertatzen dena, ardatz nagusi baten gainean: euskararen sustapena, ahularen aldeko neurria, inposatzailea dela. Ideia hori indar berriz pizten ikusi dugu azken garaiotan eskuin espainiar zalearen zelai ohikoetan ez ezik, baita ustez euskaltzale den zentro eta ezker espainiar zalean ere. Diskurtsiboki aldrebeseko mundua egin

zaigu nagusi: azpiratua inposatzaile; edo, zehatzago, inposatzaile izatearen akusazioa azpiratzeko tresna. Eta, txarrena, amua jan, eta horrek berak galarazten digula gezurra agerian uzteko diskurtso bateratu eta indartsuak eratzea.

27. Halaber, zailtasunak ditugu euskararen gorpuzte sozialerako eta euskal hiztunen eskubideak bermatzeko beharrezkoa den aterki ideologikoa gaur egungo mundura egokitzeko, berritutako eta egokitutako diskurtsoen bidez.
28. Diskurtsoa berritzeko, bi ildo dira bereziki interesgarriak, itxura batean kontraesankorrak eman dezaketenak, baina, sakonean osagarri direnak: batetik, hizkuntza gatazka identitate auzi hutsetik ateratzen duen diskurtso eta praktika lerroa. Hau da, euskaldun/ez-euskaldun parametroetatik jauzi egin eta herritar/hiztun eskubideetara eraman; hots, demokrazia eta justizia sozialaren terminoetara. Feminismoak edota erabakitze eskubidearen gaineko diskurtsoak egin duen bezala, alde aurretik identitarioak liratekeen auziak herritar/ez-herritar, eskubide osoko/eskubiderik gabeko, demokrata/ez-demokrata parametro unibertsalizatueta eramatea. Hizkuntza eskubideen aldeko borroka botere-harremanak eraldatzearekin lotzen da beraz, justizia sozialean eta demokrazian oinarritzen den beste jendarte eredu baten aldeko ekimena da.
29. Horren osagarri litzatekeen ildo diskurtsiboak, berriz, herri/kultur identitatearen aldarrikapenaren ezkerreko irakurketa positiboa berreskuratu beharko luke: pertsonen eta kolektiboen nor izatearen, burujabetzaren (erabakimenaren) esparruan kokatu. Kultur homogeneousazioa da neoliberalismoaren lanabes eragingarrienetako bat, desira eta espektatiba berdinak dituzten pertsonak nahi ditu munduko edozein lekutan. Esan bezala, euskal egitasmoak homogeneousazioaren kontrakoa, berdintasunaren eta askatasunaren aldekoa behar du.

30. Identitatearekin egiten dugu topo hemen eta horrekin lotutako sentimendu eta ideiekin. Auzi hau ez da iraganeko kontua, partikularitasunera kondentzen gaituena balio unibertsalen aldean. Aitzitik, globalizazioaren krisiaren garai honetan funtsezko aldagaia bilakatu da. Izan ere, globalizazioaren arrakastaren ospakizunak atzean utzita, burujabetzaren aldeko diskurtsoak indarrez datoz bueltan. Neoliberalismoak taldetasuna hausten du, kolektiboa, komuna, publikoa dena pribatizatuz; norbanakoa bakar-bakarrik nahi du merkatuaren aurrean. Jendarte hauskor eta fragmentatuak dira gaurkoak, talde baten parte sentitzeko premia bizia dutenak. Identitatearen eraikuntzari, nor izateari (nor-tasunari), edo, nahi bada, nazio kontakizunari etorkizuneko proiektio eraldatzailea emateaz ari gara.
31. Berritze ideologiko hau ezkerreko independentismoak fase politiko honetan behar duen berrikuntza ideologikoaren parte da, eta, beraz, erabat txertatuta behar du askapen egitasmoaren corpus ideologikoan. Euskarak askapen egitasmoan izan duen erdigune sinbolikoa birdefinitzea da proposatzen ari garena.
32. Ezkerreko independentismotik hitz egiten dugu. Ez diogu hau denik euskarak behar duen diskurtso bakarra, inolaz ere. Mugimendu euskaltzalea biziberritzeko bektore ideologiko bat proposatu dugu, balio kualitatibo bat ikusten dioguna. Gaude gaurko gazteek euskararen aldeko hautu kontziente bat egingo badute, tresneria ideologiko indartsu bat behar dutela eskura, krisi-aro global honetan norberatasuna eraikitzeke baliagarri gertatuko zaiena eta gutasun baten parte egingo dituenena. Izan ere, datozen hamarraldietan ere euskararen aldeko hautua egitea korrontearen kontra egitea izango da, izugarri bortitza den korronte baten kontra (mundu neoliberal honen indar disolbatzailea).
33. Baina euskarak diskurtso gehiago ere behar ditu: erakargarritasunarena, prestigioarena, hizkuntz ekologiarena eta abar. Herritarrak euskarara

hurbiltzeko eraginkorrak diren diskurtso eta motibazio-adar guztiak dira beharrezkoak eta baliatu beharrekoak. Diskurtsook ez daude elkarren arteko lehian, osagarriak dira.

## Euskalgintzaren biziberritzea\_

34. Euskalduntzearen gisako erronka bat herri-mugimenduaren bultzadaz baino ezin gauza daiteke. Esan bezala, premiazkoa deritzogu mugimendu euskaltzalearen biziberritzea. Ametsa barreiatuko duen mugimendua behar du garai honek, euskal hiztun kontzienteak sortzeko gai diren praktika diskurtsiboak. Hain zuzen, proposatutako berritze ideologikoaren bitartek, hizkuntza eskubideen eta justizia sozialaren aldarria herri-egitasmo emantzipatu batekin josiko duen praktika diskurtsiboa faltan dugula deritzogu, euskaltzaletasuna garaiko mugimendu sozial emergenteekin (feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren kontrakoa) sintonizatu eta artikulatuko duena. Euskalgintzaren biziberritzerako hiru bide proposatuko ditugu hemen.
35. Lehena urte luzeetako borroka-jarioa eguneratzea da. Lutxo Egiak mugarri bat jarri zuen 2015ean. Donostiako Egia auzoak hartu zion lekukoa, Lasarte eta Agurainek ondoren, hasierako ekintza performatiboa ekimen kolektibo berritzaile bihurtu zen. Euskal hiztunak ahalduntzearen bidez hizkuntza gatazka esplizitatu eta izendatzea zen helburua. Errekasto hura emari handiko ibai bilakatu da Euskaraldiari esker. Euskaraldiaren onurak zerrendatzeak luze joko luke. Potentzial handiko ekimena da, aldaera



ezberdinak izan ditzakeena eta tokian tokiko errealitatera egokitzeko aukerak ematen dituena. Ekimen honek ez-euskalduna modu abegikorrean interpelatu du, eta horrela behar du. Baina, aldi berean, interpelazio hori bera beste maila batzuetara eramango duten ekimenen faltan ere bagaudela deritzogu. Feminismoak egiten duen bezala, hizkuntza gatazka azaleratuko duen lan-molde eta forma askotariko praktika politiko euskaltzale baten premia dugu, hizkuntzaren auzia problematizatu eta hizkuntza politiketan aldaketak beharrezkoak direla ikusaraziko duena.

36. Interseksionalitatearen bidea jorratzen duen elkargunearen ideia da bigarrena. Feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren eta euskaltzalearen arteko gurutzaketak bilatzea. Hizkuntza praktika kontziente bat egiten dugun euskaldunon azpiratzea bestelako menderakuntzekin gurutzatu dadin. Horrela, menderakuntza-sistema ezberdinetako botere-harremanak esplizitatu eta elkar ahalduztzeko guneak sortuz. Euskara feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren hizkuntza izan dadin, mundu berri baten ametsaren gogo-eroale bihurtu dadin. Globalizazio neoliberalaren totalitarismo berriari aurre egiteko lekune bat, praktika bat, politika eta estetika bat (ez hori bakarrik, baina hori ere bai). Talde feminista euskaltzaleak, ingurumenaren zaintza sustatzen duten mendi-talde euskaltzaleak, herri hezitzaileen filosofian txertatutako esperientziak eta abar.
37. Euskal kulturgintza sistema indartzea da hirugarrena. Hizkuntzaren jabe-kuntza hutsetik landa, komunikazio sinbolikoan, afektiboan eta kultur komunikazioan jarriz lehentasuna. Hizkuntza batek ez baitu etorkizunik kultur sistema beregainik gabe. Egun, euskaldunok, ez dugu aukera sendorik komunitate gisa identifikatzeko, haserretzeko, pentsatzeko, poztzeko, irakurketa sentikor bat adierazteko. Kultur eredu burujabea eskala lokaletik sustatzeaz ari gara. Arte eszenikoak, literatura eta zinemagintza oinarri gisa hartuz, eskala lokala eremu estrategiko kontsideratu eta esperimentazio

guneak sortzea izan liteke etorkizuneko politika kultural orokorrago baten zutabe bat.

## Ipar adostu baten beharraz\_

38. Mugimendua biziberritzean jarri dugu arreta orain artekoan, erakunde publikoengan jarriko dugu orain. Ez baitugu ahaztu behar hizkuntzarena auzi politikoa dela, ekimen politikoa eta babes legala eskatzen dituen. Bada garaia erakunde publikoei gaur egun dutena baino erantzunkizun handiago eskatzeko. Euskalduntzean aurrera egiteko ditugun egiturazko hutsu-neak aztertuta eta bitartekotutako harremanek (sareek, komunikabideek eta abar) irabazi duten pisua ikusita, erakunde publikoen protagonismo handiago bat eskatzen du momentu honek. Hain zuzen, herri-mugimenduaren bultzadak eta euskal hiztunen aktibazioak hizkuntza-politika berri baten eskutik behar du.
39. Euskararen normalizazioa, biziberritzea edota berreuskalduntzea ulertzeko egon daitezkeen ikuspegi ezberdinen gaintetik ipar adostu bat behar dugu datozen 15-20 urteei begira. Adostasunak posible behar duelakoan eta posible delakoan gaude. Non egon nahi/ahal dugu 2040an ezagutzari eta erabilerari dagokionez? Eta non euskararen posizio sozial eta simbolikoari dagokionez? Horiek dira erantzun beharreko galdera nagusiak. Ondoren, pentsatu ditzagun estrategiak eta beharrezko azpiegitura. Eta,

helburuak, estrategiak eta azpiegitura zehazterako orduan, testuingurua baldintzatzen duten faktore sozial eta kulturalak ondo neurtu ditzagun.

40. Adostasuna eztabaida politiko zorrotz baten ondorio baino ezin daiteke izan. Ikuspegi ezberdinak egotea beharrezkoa eta normala da. Ikuspegi ideologiko ezberdinen arteko lehia gauza naturala da edozein jendar-te demokratikotan. Egon behar du eta egongo da, gatazka (ideologikoa) ukatzea politika bera ukatzea baita. Afera zera da: herri ikuspegia lehenesten dugun ala alderdi ikuspegia, herrigintzak mugitzen gaituen ala alderdigintzak. Fase politiko berri batean gaude, non gatazka eta kontsentsu berriak izango diren. Zenbait inertzia hausteko garaia da, kultura politiko berri bat behar dugu, eztabaida poli(s)tikoak heldutasunez egi-teko gai behar dugu.
41. Egin dezagun eztabaida sakon bat: Azter dezagun egindako ibilbidea, non gauden normalizazioari dagokionez, zein mundutan bizi(ko) garen eta zein izan behar den ipar adostu hori. Eta ondoren, egin dezagun planifikazio ausart bat, pentsatu dezagun halako helburuak lortzeko nolako estrategiak behar ditugun eta zein den beharrezko azpiegitura. Hitz egin dezagun, beraz, euskarak XXI. mendean behar duen estatu ikuspegiko hizkuntza-politikaz; horrek bere baitan biltzen duen tresneria eta ikuspegi holistiko (politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalarekin) eta hartarako baliabideekin.
42. Euskalduntze fase berriak behar ditu garaiko erronka nagusi batzuk, identifikagarriak direnak jendarte osoarentzat eta baliogarriak euskararen lurralde osorako. Nolabait, euskalduntze fase berriaren ikur eta katalizatzaile direnak: Ofizialtasuna euskararen lurralde osoan, komunikazio espazio nazional bat sendotzea, euskal kulturaren transmisioa, murgiltze ereduak hezkuntza sisteman, lan munduaren euskalduntzea, arnagune soziofuntzionalak eta lurralde mailakoak trinkotzea eta abar. Non jarriko ditugu lehentasunak? Halaber, erronka hauei nola eta noiz heldu eremu admi-

nistratibo bakoitzean, hau da, zein bataila politiko eta nola egingo ditugun eremu administratibo bakoitzean, ondo neurtu beharreko kontua da.

## Gobernantza eredu berri baten aukera\_

43. Halako adostasun baten eraikuntzak euskararen gaineko kontsentsu eta praktika zabal, berri eta gaurkotuak eskatzen ditu lehenik eta behin. Euskaraldiak eman lezake arnas hori. Euskaraldiak frogatzen du euskararen aldekotasuna errotua dagoela euskal jendartean. Energia hori guztia euskararen etorkizuna bermatzeko herri-adostasunak jostera bideratu beharko litzatekeela deritzogu.
44. Instituzioen eta herri-eragileen artean lortu den lankidetzaren dimentsio berri batera eramateko moduan egon gaituzke: lankidetzaren ez soilik erabilera sustatzeko ekimen baten antolakuntzarako, baizik, baita ere, XXI. mendeko hizkuntza-politikak diseinatzeko adostasun soziopolitikoak erdiesteko. Gobernantza eredu berri bat indarrean jartzeaz ari gara, bi erpinen arteko lankidetzaren ez-hierarkiko bat: euskalgintza sozial antolatua ordezkatzeko lukeen autoritate soziala eta instituzio publikoak. Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren eta Herri Elkargoaren arteko harreman instituzionala izan daiteke era honetako gobernantza eredu baten adibide on bat. Jokoa arauak finkatzea da adostu beharreko lehen gauza.

## **Estatus politiko berrien eztabaidaz\_**

45. Azkenik, estatu ikuspegiko hizkuntza politikez dihardugarik, ezin ahantz dezakegu euskalduntze fase berri honek eskatzen dituen politikak garatzeko estatus juridiko-politiko berrien beharra izango dugula hiru eremu administratiboetan. Estatu egiturarik gabe ere asko egin daiteke, ez gaude ezeri ez inori itxaroteko moduan; baina, era berean esan daiteke euskalduntzean urrats kualitatiboak emateko estatus juridiko-politiko burujabeak behar ditugula, eta, beraz, euskalgintzatik estatus politikoaren eztabaidan posizioa hartzea logikoa eta normala litzatekeela.
45. Jauzi kualitatibo bat behar dugu gure autogobernuan, euskarari berezko hizkuntzaren estatus juridikoa aitortuko diona, ofizialtasuna emango diona eta euskara jakitea eskubide eta betebeharrak gisa jasoko duena. Honek hiru eremu administratiboetarako balio digu erreferentzia gisa, hori da behar genukeena. Besterik da bataila politikoak noiz eta nola egin ondo aztertzea.

## Azken hitza\_

Otsailaren 22an Gasteizen ospatuko den Plaza Hutsa tailerrean dokumentu honen oinarriarekiko adostasuna badago, gogoetaren bigarren fasea irekiko dugu, eztabaida publikoari bide emanez. Era guztietako iritziak jaso nahiko genituzke, baita dokumentu honetan egiten diren planteamendu nagusiekiko iritzi kontrajarrak dituzten euskaltzaleena ere. Horretarako bitartekoak jarriko ditugu.

Datozen hilabeteak zehaztasunetan murgiltzeko izango dira, euskalduntze fase berriak eskatzen dituen estrategien eta baliabideen inguruko gogoeta zehatzagoei buruz aritzeko. Gogoeta prozesu honi udazkenean emango diogu amaiera, propio euskarari eskainitako Plaza Hutsa tailerrean.